

## OHARRAK

### GELARA EKARRI BEHARREKOAK:

- ✓ Brusak 2: botoiak aurrean dituena eta manga muturrak erraz jasotzeko modukoak izatea komeni da. Asteazken eta ostiraletan etxera eramango dute garbitzera. Astelehenetan brusa biak ekartzea gomendatzen dizuegu.
- ✓ Muda oso bat (oinetakoak barne) aldatzeko. Ikastolak telazko bigarren poltsa emango dizkizue.
- ✓ Bazkal ostean geldituko denak izara beharko du lotarako. Ez daukanak eska diezaiola irakasleari.
- ✓ Etxeko zapatilak.
- ✓ Ura edateko botila edo kantinplora bat.
- ✓ Jolastokian ibiltzeko oinetako aproposak. Botinak.

### KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- ✓ Umeak arropa erosoekin bidali eta belkrodun oinetakoekin.
- ✓ Arropa guztiei eskegitzeko zinta eta izena ipini, baita oinetakoei ere.
- ✓ Irteera lekuak errespetatu. Ikasturte hasieran, frontoian txartelak jarriko ditugu zain non egon behar duzuen jakin dezazuen. Ikasturte osoan zehar, toki berean zain egon beharko duzue.

### BESTELAKO OHARRAK:

- ✓ Zerbitzu orria beteta ekarri bilera egunean eta tutoreari eman mesedez.

